

Eibarko Udalak MADE IN EIBAR ikastaroa antolatu du Made in Eibar dokumental lehiaketan interesa duten nerabe eta gazteek oinarritzko formakuntza bat jaso dezaten. Ikusentzunezko oinarritzko atalak landuko dira, story board, bideo edizioa, grafismoa, soinua...

Tramitatzailea: Ekonomia, berrikuntza eta enplegua
Hartzaileak: + 12 urtetik gorakoentzat
Ordutegia: 11:00etatik 13:00etara.

Nork emango du: Itzamna
Non eta noiz: Juan San Martin Liburutegian
Apirilak 5, 12, 14, 15 eta 16 de abril

Ikastaroaren prezioa: 8€ (Eibarren erroldatuak)
13€ (Eibartik kanpokoak)
Ikastaroaren ordainketa: matrikula ordainketa bakar batean kobratuko da, erreziboa helbideratuta
Eskaera egiteko tokia:
PEGORA, Herriarren Zerbitzurako Bulegoa.
Aurkeztu beharreko agiriak:

Ikasle kopurua: gutxienez 8 ikasle, eta gehienez 16 ikasle
Eskaera egiteko epea:
Martxoaren 17tik 28ra (biak barne)

“IKASTAROAK: MATRIKULA ORRIA” izeneko inprimakia behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, www.eibar.net, eskuragarri).

Eskatzailea heldua bada: eskatzailearen NANaren edo balio bereko dokumentu baten kopia.

Eskatzailea adin txikikoa bada:

Aitaren, amaren edo tutorearen NANaren edo balio bereko dokumentu baten kopia.
NAN dokumentuen alde biak A-4 neurriko alde bakar batean inprimatuko dira.

Tutoreen kasuan, tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa.

Kudeaketa arauak:

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxieneko ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da (www.eibar.net), **apirilaren 3an**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxieneko ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da**. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **apirilaren 2an 14:00etan**
Zozketa era honetan egingo da:

Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztiekin zerrenda bat egiten da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio.
Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zerrenda bakoitzeko zenbaki bakar bat ateratzen da.
Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horren jarraian dauden zenbakiak dituztenak izango dira ikastarorako aukeratuak plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren web-gunean egongo da **apirilaren 3tik** aurrera. Zerrenda hori argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

Informazio gehiago: 943 708 437